

IRAUTZEEKO PREST!



Araba Eulogio Serdán 5 • 01012 Gasteiz
☎ 945 14 11 04 📠 945 14 43 02
araba@steilas.eus
UPV/EHU Arabako Campusa
Ikasgelategia, 204. Bulegoa • 01006 Gasteiz
☎ 945 01 33 97 (3397)
steilas-araba@ehu.es

Bizkaia Jose Maria Eskuza 1, 1 esk. • 48013 Bilbo
☎ 944 10 02 98 📠 944 10 13 60
bizkaia@steilas.eus
UPV/EHU Bizkaiko Campusa
Gizarte Arloko Eraikina • 48940 Leioa
☎ 946 01 24 34 – 435 (2435)
steilas-bizkaia@ehu.es

Gipuzkoa Basotxiki 30-34 atz. • 20015 Donostia
☎ 943 46 60 00 📠 943 45 36 27
gipuzkoa@steilas.eus
UPV/EHU Gipuzkoako Campusa
Ignacio M^a Barriola eraikina • Elhuyar Plaza 1
☎ 943 01 84 36 (8281) 📠 943 01 81 40
steilas-gipuzkoa@ehu.es

Nafarroa Joaquin Beunza, 4-6 beheka • 31014 Iruñea
☎ 948 21 23 55 📠 948 22 97 90
nafarroa@steilas.eus

www.steilas.eus

IRAULTZEKO PREST!

Azala: Zaldi Eroa

Diseinu eta maketazioa: Marra

2018 Udaberria



IRAULTZEKO PREST!

Aurkibidea

1. Zer da zer? Oinarrizko hiztegia 4
2. Zorionak! Eta, zer da? Neska ala mutila? 5
3. Helburuak 6
4. Jarduerak 7
5. Ebaluaketa 20
6. Eranskinak 21
7. Bibliografia. Informazio erabilgarria 26



1. Zer da zer? Oinarrizko hiztegia



Matxismoa. Gizonezkoei, gizon jaiotzeagatik, emakumeen gainetik aitortzen zaien/zaigun nagusitasun jarrera.

Genero femeninoarekiko zein jendarteak ezartzen dituen araututako genero-adierazpen eta orientazio afektibo-sexuala ez-heteronormatiboak dituzten pertsonen aurkako ekintza fisiko zein ahozkoen multzoa.

LGTBIQfobia. LGTBIQfobia hitzekoa, fisikoa eta sinbolikoa den biolentzia da, sexualitatea heteronormatibitatearen baitan arautzen duen sistema kultural oso batean oinarritzen dena. Biolentzia hau sistema honek arautzen dituen praktika sexuarekin eta genero rolekkin apurtzen duten/dugun pertsonengan ematen da, eta, beldurra, isolamendua, autoestimu falta zein depresioak ditu ondorio bezala.

Maskulinitatea. Jendarteak gizon eta mutilei buruz osatzen duen berariazko portaera, rol, ezaugarri fisiko eta psikologikoen multzoa, femeninoekin kontrajarriak.

Feminitatea. Jendarteak emakume eta neskei buruz osatzen duen berariazko portaera, rol, ezaugarri fisiko eta psikologikoen multzoa, maskulinoekin kontrajarriak.

Generoa. Sexu biologikoaren arabera, jaiotzeagatik, gizon eta emakumeei hainbat ezaugarri ezberdin ematen dien eraikuntza sozial eta kulturala.

Genero-rola. Gizon edo emakumea izateagatik kultura eta jendarte baten baitan onargarriak diren jarreraren multzoa. Jarrera hauek jendarteak maskulinitateari eta feminitateari buruz duen eraikitako ideien arabera dira.

Heteropatriarkatua. Gainontzeko genero eta orientazio afektibo-sexualen gainetik genero maskulinoa eta heterosexuala gailentzen den sistema soziopolitiko.

Heteroaraua. Patriarkatuak inposatutako gizarte, politika eta ekonomia erregimena, alderdi publikoan zein pribatuan zabaltzen dena. Erregimen honen arabera, heterosexualitatea da onartzen den desio afektibo-sexuala adierazteko modu normal bakarra. Hau da, orientazio afektibo-sexuala, rolak eta pertsonen artean eratzen diren harremanak "gizon-emakume" sistema bitarrean eman behar dira, eta sexu biologikoak genero-adierazpenarekin zein sozialki honi onartutako desioekin bat egin behar du beti. Horrekin batera, azal zuria, klase ertaina, eta familia tradizionalaren partaide izatea da heteroarauak aurkezten duen eredu bakarra.

Sexu biologikoa. Pertsonak gizon eta emakume bezala definitzen dituen ezaugarri biologiko, fisiko, fisiologiko eta anatomikoen multzoa.

Sexu-genero sistema bitarra. Sexua eta generoa osagarriak eta ezberdinak diren forma maskulino eta femeninoan sailkatzen dituen sistema. Sistema bitar honek "sexua", "generoa" eta "sexualitatea" berariaz lerrotatu egiten ditu; hau da, gizona, itxura, gorputz, izaera eta jarrerarekiko maskulinoa bezala ulertzen du eta horrek emakumeekiko sexu-orientazio heterosexual bat dakarkio. Sailkapen honek, beraz, bi eredu horietatik at uzten ditu sexu-organo intersexualak dituzten gorputzak eta euren burua lesbiana, gay, transexual, transgenero, genero ez-bitarreko edo hirugarren generoarekiko identifikatzen diren pertsonak.

2. Zorionak! Eta, zer da? Neska ala mutila?

Heteroarauan oinarritutako jendarteak planteatzen duen lehenengo premisa dela esan dezakegu. Mila aldiz entzun eta, ziur gaude baietz, gehienok inoiz inguruko lagun edo familia-kide bati egin diogun galdera... inozoa? Bada, ez galdera ezta honen ondorioz jaso ohi ditugun erantzunak ere, ez dira inondik inora inozoak. Izan ere, horien atzean **heteroarauan oinarrituta dagoen eraikuntza soziokulturalak** guztiz baldintzatuko du jaioko den haur horren etorkizuna bere genero-identitate eta orientazio afektibo-sexualari dagokionez, besteak beste.

Ekografia batek haur horren **sexu biologikoa** zein den zehaztuko du. Medikiak haur hori *neska* ala *mutila* den **genitalei** erreparatuz esango du. Hau da, alua badu, neska da; zakila badu, berriz, mutila. Horrela, jendarteak bi sexutan banatzea lortzen dugu: emakumeak eta gizonak. **Sexu-genero sistema bitarra** deritzogunak ez du beste saiklaren onartzen eta, honen ondorioz, gorputz-eredu horietatik kanpo daudenak baztertu egiten ditu: neska edo mutila izan behar dugu.

Baina sexu biologikoaren *diagnostiko* horren eragina haratago doa, noski. Behin jaioko dena *neska* edo *mutila* izango dela jakinda, **genero-identitate** bat esleitzen zaio: femeninoa edo maskulinoa. Beste behin, heteroarauak aniztasunerako aukera gutxi utzi dio haur horri: mutil maskulino eta neska femenino heterosexuak aurreikusten ditu. Beraz, jaioko aurretik bere sexu-biologikoaren eta genero-identitatearen arabera **rolak** ezartzen zaizkie haurrei. Gurekin ere halaxe egin zuten!

Rol horiek, edo **genero-adierazpenak**, estereotipoetan oinarritzen dira. Alegia, **estereotipo femeninoa** eta **estereotipo maskulinoa**. Beste modu batean esanda, neska femenino heterosexual eta mutil maskulino heterosexualak nola adierazi behar diren zehazten duten rolak dira. Hala ere, rol hauek oso eredu itxian oinarritzen dira, ahaztu egiten baitituzte, adibidez, ustez genero adierazpen *maskulinoa* duten *neskak* (marimutilak), ustez genero adierazpen *femeninoa* duten *mutilak* (lumadunak) zein genero-adierazpen konkreturik ez duten gorputzak (androginoak).

Ezin dugu ahaztu **heterosexualitatea** dela guztioi aurreikusten zaigun **orientazio afektibo-sexuala** eta horrek ere eragin nabarmena duela haur horien identitatearen eraikuntzan. Sexu-orientazioa askoz zabalagoa da eta, izugarritzko garrantzia du ahalik eta aniztasun zabalenean oinarritutako ereduarekin haztea, heztea eta ikastea. Eraikuntza hori ezin dugu irainen eta bazterketaren esku utzi. Norberaren identitatearen eraikuntza norberaren askatasunean oinarritu beharko

litzateke, parte garen kolektiboan aske izan, hazi eta bizi ahal izateko.

Zoritxarrez, heteroarau zurrunean oinarritutako jendarteak dugu ispilu. Neskei femeninoak izan behar direla esaten dien heteroaraua. Mutilei sentimenduak adieraztea galarazten dien heteroaraua. Transexualak gaixo daudela errepikatzen dien heteroaraua. **Txi-ki-txikitatik** zer egin, zer esan, nola adierazi, zer pentsatu, zer sentitu, zertan jolastu... eta zer ez esan, zer ez egin, zer ez sentitu, zer ez adierazi, zer ez pentsatu, zertan ez jolastu... **behin eta berriz** errepikatzen digun heteroaraua, azken finean.

Honek guztiak genero-identitate eta adierazpenen eraikuntzan duen eraginak **LGBTIQ kolektiboa** bete-bete harrapatzen du. Honekiko mespretxu eta gorrotoak, **LGBTIQfobia** bezala ezagutzen dugunak, heteroaraututako sistema soziokulturean errotzen da. Eta konturatu ala ez, sistema erreproduzitzen ari gara, etengabe. **LGBTIQfobiarekin bukatu behar dugu**, ez honen aurka borrokatu, beste aukerarik ez baitago: **LGBTIQfobiak** (hau da, heteroarauak) askatasunean eta berdintasunean oinarritutako jendartearen garapena oztokatzen du.

Hezkuntza sistemak eta bertan lanean dihardugunok erantzukizun handia dugu prozesu honetan. Beraien identitatea eraikitzen ari diren haur eta gazte horiek gure eskoletan ditugu, geletan, zentroetan. Lagungarriak izan behar dugu, eragile aktibo. Eskola ezin da aniztasunarentzat arrotza den gune bat izan, babesa eskaini behar dio, lasaitasuna, jazarpenik gabe diren bezalakoak adierazteko askatasuna.

Hau guztia zergatik planteatzen dugun galdetzen duenik ere badago. Egoera aldatzen ari dela pentsatzen dugun bitartean, **errealitate gordina** zein den gogorarazten diguten bizipen latzak behin eta berriz azaleratzen dira, tamalez. Nahikoa dela esan behar dugu. Berandu ari gara eta aldaketak ezin du gehiago itxaron. Haur eta gazte horiek ezin dute gehiago itxaron, ezta guk ere. **Hitzetatik ekintzetara** pasa behar dugu.

Bitartean, **LGBTIQfobiaren** aurkako nazioarteko egunaren baitan, maiatzaren 17an, horrelako materiala sortzen jarraituko dugu, behar-beharrezkoa baita oraindik ere. Zuen esku uzten dugu Unitate Didaktiko hau, askatasun osoz erabili eta gozatzeko.

Heteroaraua iraultzeko prest!

3. Helburuak

Helburu orokorra

Heteroarauak genero-identitate eta adierazpen ezberdinen eraikuntzan duen eragina lantzea eta honek LGTBIQ kolektiboarengan dituen ondorioen gainean kontzientzia hartzea eta hausnartzea.

Helburu didaktikoak

- Pertsonen berezitasun indibidualak errespetatzea.
- Norberaren ezaugarri indibidualak baloratzea eta estimatzea.
- Beren garapen psikosoziala eta autonomia bultzatuz, beren erabaki propioak hartzeko gai izan daitezen ikasleen auto-estimua modu aktiboan sustatzea.
- Norberaren izaera libre bizitzea erraztuko digun elkarbizitza osasuntsu baten aldeko eta kontrako jarrerak identifikatzea.
- Gaitasun sozialak lantzea, hausnartzea, argudiatzea eta bestelako identitateekiko enpatia agertzea.
- Jendartean heteroarauak, botere harremanek eta estereotipoek zenbateko eragina duten aztertzea.
- Janzen dituzten/ditugun arropen inguruko hausnarketa egitea (eta janzen ez ditugunen/dituztenen inguruan): garena definitu beharrean, arropek kanpo itxura bat besterik ez digutela ematen adieraztea.
- Ipuinek genero-estereotipo eta identitateen ezarpenean duten eraginaren inguruko hausnarketa egitea, hauek identifikatzen ikastea eta zalantzan jartzea.



Oinarrizko gaitasunak

- Jendarterako eta hiritartatasunerako gaitasuna.
- Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna.
- Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna.
- Informazioa lantzeko gaitasuna eta gaitasun digitala.
- Kultura-gaitasuna eta gaitasun artistikoa.



Edukiak

- Hainbat bideo ikusi eta aztertu.
- Informazioaren bilaketa selektiboa egin.
- Jendarte-garapenerako kolektibo eta izaera anitzen ekarpenak aztertu.
- Identitate ezberdinen egoerei buruzko sentsibilizazioa sustatu.
- Elkarlanerako eta lankidetzarako jarrera garatu.
- Irizpide kritikoz jokatzeko gaitasuna garatu.
- Heteropatriarkatuan onargarriak diren rola aztertu eta zalantzan jarri.
- Emozioak identifikatu.
- Auto-estimua hobetzeko mekanismoak landu.
- Harremanak errespetuz eta berdintasunez ezarri.

4. Jarduerak

IRAULTZEKO PREST!



IRAULTZEKO PREST!

unitate didaktikoan aurkezten ditugun jarduerak adin-tarte konkretu batekin edo batzuekin lantzeko planteatzen baditugu ere, hauek ikasleen adinaren zein gaiarekiko duten motibazioaren arabera egokitzea proposatzen dugu. Horretarako, baliabide desberdinak erabili daitezke. Unitate didaktiko honetan jasotakoak proposamen bat besterik ez dira, zuen helburuak lortzeko edo zuen testuingurura egokitzeko lagungarriak. Hauekin batera, zuen baliabide propioak bilatzera eta, zergatik ez, sortzera animatzen zaituztegu.

1. Gaiaren aurkezpena eta motibazioa

Lanketa

Haur Hezkuntza,
Lehen Hezkuntza,
Bigarren Hezkuntza.

Denbora


45-60 minutuko 3 saio.

Taldekatze mota

Banaka, talde txikiak
eta talde handia.

Materialak

STEILASek aurkeztu duen kartela eta Glaukoma taldearen "Gure kaiola" abestia (ikusi 1. Eranskina), folioak, margoak, ogibideen fitxak (ahalik eta anitzenak prestatu).



1. SAIOA

Garapena


HHko 2. zikloa, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntza

Irakasleak **STEILAS**eko kartela toki ikusgarri batean jarriko du.

Ikasleak talde txikitik banatuko dira eta hamabost minutuan talde bakoitzari kartelaren esanahia zein den eztabaidatzeko eskatuko zaio.

Esanahiak komunean jarriko dira eta ondorengo galderen inguruan hitz egingo da adinaren arabera galderak egokituz:

- # Nortzuk agertzen dira kartelean?
- # Zein ezaugarri dituzte?
- # Zergatik dago bat goian eta beste guztiak, berriz, azpian?
- # Nor da goian dagoena?
- # Zer dute goian daudenek behean daudenekin alderatuz?
- # Kartelaren leloak zer adierazten du?
- # Non jarriko zenuke zeure burua?
- # Gaur egun horrelako aldarrikapenak egiten jarraitu behar al dugu? Zertarako?
- # Zeri erreparatu diozue horrelako ondorioak ateratzeko?
- # ...



HHko 2. zikloa LH 1, 2, 3 eta 4

Taldean, folioak eta margoak beraien esku utzita, lanbide ezberdinetan ari diren pertsonak marraztea eskatuko diegu:

Margotu dezagun...

- | | | |
|--------------------------|-----|----------------------|
| Saskibaloj-jokalari bat. | ••• | Autobus-gidari bat. |
| Mediku bat. | ••• | Tenis-jokalari bat. |
| Dantzari bat. | ••• | Irakasle bat. |
| Mekanikari bat. | ••• | Hegazkin-pilotu bat. |
| ... | | |

Margotzen ari diren pertsona horri izena jartzeko eskatuko diegu eta, nahi izanez gero, deskribatzeko ere esango diegu (esaten dutena jaso eztabaidarako).

Marrazten ari diren bitartean gure lana behatzea izango da, egiten ari direna epaitu gabe; gogoratu erabiltzen dugun hiztegiak ahalik eta neutroena izan beharko duela.

Marrazkiak bukatu eta gero, hauek errealitatean aurkitu dezakegunarekin konparatuko ditugu. Ditugun baliabideen arabera, ogibide horiek betetzen dituzten pertsonak gelara eraman ahal ditugu edo euskarri digitalean zein paperezkoan aurkeztu. Erabiltzen dugun euskarria bat edo bestea izan, ahalik eta aniztasunik handiena erakusten saiatuko gara, eta kontuan hartuko ditugu generoa, arraza, erlijioa eta orientazio afektibo-sexuala, besteak beste.

Beraien marrazkiak errealitatean aurkitu dezaketenarekin alderatu eta gero eztabaidatxo bat sortu dezakegu gelan:

- Zergatik margotu dituzue langile horiek margotu dituzuen bezala?
- Neska batek/mutil batek ezin du... izan, ala?
- Neska bat nahi duena izan ahal da?
- Zergatik uste duzue mutil gutxi/gutxiago daudela lanean irakasle/... bezala?
- ...



Ezagutza eta galdera hauek etxean, familian edota lagunartean elkarbanatzera animatuko ditugu, haien kabuz informazioa bilatzera... Egokia litzateke, aurrez, gelako familiei gelan aurrera eramango ditugun jarduera eta ekintzen berri ematea. Familien parte hartzearekin, emaitza hobekiak lortuko ditugu, zalantza izpirik gabe.




Ariketa honen adibide gisa "Inspirando el futuro sin estereotipos" izeneko bideoa ikusiko dugu.

<https://www.youtube.com/watch?v=pJvJo1mxVAE>



Aukera ikusten baduzue, arraza, erlijio eta aniztasun afektibo-sexualaren araberako galderak ere planteatu ditzakezue tonu berdinean:

- Neska transexual batek aktore moduan egin ahal du lan?
- Neska lesbiana bat izan daiteke herrialde bateko presidente?
- Mutil gay bat saskibaloijokari izan daiteke?
- ...



LH 5, 6, DBH eta Batxilergorako

Glaukoma taldearen "Gure kaiola" (<https://www.youtube.com/watch?v=Rq7QiETb37k>) abestia entzungo dugu lehenengo.

Ikasle bakoitzak letra irakurriko du bere kabuz eta garrantzitsuak iruditzen zaizkion esaldiak azpimarratuko ditu.

Talde handian esaldiak elkarbanatuko dituzte eta esan nahi dutenaren inguruan hausnarketa egingo dute. Esaldi konkreturen bati buruz hitz egin nahi baduzue, zuzenean interpelatu diezaiekegu horren inguruan (beraiek ez baldin badute horretan pentsatu).



3. SAIOA

Garapena

HHko 2. zikloa, LH 1, 2, 3, eta 4

Beharrezkoa ikusten baduzue, 2. saioaren emaitzak baloratzeko ariketa errepikatu dezakezue egindako lanak haurren eraginik izan ote duen ala ez ziurtatzeko.

Erabiltzen duzuen hiztegia eta planteamendua egoera berrira egokitu ditzakezue ("gogoratzen duzue atzo ikusi/esan genuena?..."). Berez, haurrek, ez dute berdin gauzatuko, gaiarekiko kokapen berria izango baitute. Bezperan bereganatu zituzten ezagutzak eta irizpideak zein puntura arte errotu ziren egiaztatzeko baliatu dezakezue bigarren saio hau.

Bigarren ariketa honetan gerta daiteke nolabait haur taldearengan eragin behar izatea, eztabaida sortu delako, aurreiritziak izaten jarraitzen dutelako edo berriak sortu direlako.

Erakusketa bat egingo dute sortutako irudiekin, eta hausnartu ondoren, bakoitzak izan nahi duenaren marrazkia egin dezake edota horren inguruan hitz egin dezakegu.

LH 5, 6, DBH eta Batxilergorako

"Gure kaiola" abestitik gehien gustatu edo esanguratsuena iruditu zaion esaldiarekin kartel bat egingo du ikasle bakoitzak (esaldia idatzi edo bakoitzari sorrarazten diona marraztu dezake, sentiarazten diona adierazteko).

Eskolako pasabideetan itsatsiko dituzte egindako lanak.

2. Arropek ez dute generorik

Lanketa

HHko 2. zikloa eta LH.

Denbora

45-60 minutuko saio 1
(beharrezkoa bada, nahi
beste errepikatu daiteke).

Taldekatze mota

Gelako haur guztiak
eta irakaslea.

Materialak

Haurrak eta gu "itxuraldatu" gaitzen beharrezko arropa eta osagarriak (mozorrorik ez, gure generoagatik egunerokotasunean erabiltzeko baimenik ez dugun arropa baizik). Makillajea ere erabili (azkazalak, ezpainak eta masailak margotzekoa, adibidez). Gorputz osoko ispiluak (posible bada).



SAIOA

Garapena

Ispiluaren aurrean jarrita gaudela, nor bere buruari behatu diezaion eskatuko diegu (guk berdina egingo dugu).

Behaketaren ostean, zer ikusi dugun deskribatuko dugu: garaiera, ilea, begi-kolorea, hankak, eskuak...

Behin geure burua deskribatu dugula, gelakide bat deskribatu dezatela eskatuko diegu.

Guztiok geure burua eta lagunenak deskribatu ditugunean, jaso ahal izan dugun guztia batzeko, galderak egin ditzakegu:

- # Orduan, zenbaterik dute/dugu ile luzea?
- # Eta, begi marroiak?
- # Zenbaterik ditugu 2 esku?
- # Zeintzuk esan dugu...?
- # ...

Ariketan jaso ditugun deskribapenen eta erantzunen arabera egingo ditugu galdera horiek eta generoa ezberdintzen duten galderak saihestuko ditugu.

Arropen, osagarrien eta makillajearen kutxak atera, eta "itxuraldatu" egingo gara.

Ariketa hau aurrera doan heinean, itxuraldatzeko erabili ditugun arropak eta osagarriak nahi beste aldiz alda ditzakegu baita gure artean elkarbanatu ere. Heldu bat baino gehiago egotea gomendagarria izan daiteke, eredu izan gaitzen. Argazkiak ateratzea proposatzen dizuegu.

Taldeak ariketa bukatutzat ematen duenean, arropak eta osagarriak jaso eta eztabaidarako momentu aproposa bilatuko dugu: nola sentitu garen esan dezakegu, zeintzuk izan diren izan dituzten/ditugun sentsazioak, gustura egon diren/garen edo ez, eta zergatik, errepikatzea nahi ote duten/dugun... Galdera hau egitea planteatzen dizuegu:

Ba al zenekiten orain dela urte batzuk gizonen gona, takoiak eta makillajea erabiltzea ohikoa zela eta emakumezkoek ezin zituztela praktikak jantzi? (Ikusi *Eranskinak*, "Webgune/artikulu/blog interesgarriak")

Momentu hau baliatuko dugu arropen funtzioaz hitz egiteko, egunero erabiltzen dituzten/ditugun arropen buruz hitz egiteko, zergatik erabiltzen duten/dugun osagarri bat edo beste bat, zergatik ez beste batzuk...

Sareak eskaintzen dizkigun baliabideak baliatuta, eredu anitzak erakusten dizkiguten argazkiak beraien esku utzi ahal ditugu, erakusketa txiki bat egin...

Adi egon: baliteke inork arropa bat edo beste jantzi nahi ez izatea mutil edo neska arropak direlako, makillatu nahi ez izatea... Momentu hori aukera polita izan daiteke zergatik galdetzeko, eta besteoi ere iritzia eskatzeko, gurea emateko...



Ariketa hau bukatzeko, izen handiko arropa-etxe bati mutilen arropen katalogoan agertu nahi zuen neskaren eskaeraren inguruko **berria** irakurtzera animatzen zaituztegu, hausnarketarako: eta alderantziz izan balitz, zer? Mutilen eta nesken arrokek ezberdinak izan behar al dute? Zergatik?...

www.noticiasdenavarra.com/2018/02/20/ocio-y-cultural/que-mundo/una-nina-de-7-anos-pide-a-zara-poder-ser-su-modelo-masculino

3. Eta hala bazan ala ez bazan... Aldatu dezagun ipuina!

Lanketa

Lehen Hezkuntzako 2. eta 3. zikloan (8-11 urte).

Denbora


45 minutuko 3 saio (3 egun jarraian).

Taldekatze mota

Gelako haur guztiak eta irakaslea.

Materialak

Txanogorritxo ipuina. Arbela, folioak, margoak (ikusi Baliabideak).



1. SAIOA

Garapena

Horrela kontatu dugu beti. Tradizioa

Txanogorritxoren ipuina kontatuko dugu, beti kontatu izan den bezala (guk kontatu ahal dugu edo beraiei irakurtzen utzi, baliabideen arabera).

Ipuinean agertzen diren pertsonaiak zerrendaratuko ditugu (Txanogorritxo, otsoa, ama, amona eta ehiztaria), eta bakoitzaren ezaugarri bat nabarmentzeko eskatuko diegu.

Saioa bukatzeko, pertsonaia bakoitzaren marrazkia egin dezatela eskatuko diegu.



2. SAIOA

Garapena

Eta ez badugu ipuina beti bezala kontatzen? Tradizioari traizio

Txanogorritxoren ipuina irakurriko diegu berri, baina, pertsonaien rola aldatuko ditugu. Gure proposamena itxia izaterik ez dugu nahi, beraz, rol aldaketa hauek nahi duzuen moduan planteatzera animatzen zaituztegu. Helburua da, hain zuzen, aldaketen aurrean haurren erantzun ezberdinak lortzea, behatzea eta jasotzea da:

- # Pertsonaien generoari buelta ematea: Txanogorritxo mutila izatea, otsoa emea, ama beharrea aita, amama beharrea aitona, ehiztaria ere neska izatea...
- # Pertsonaia guztiak neskak edo mutilak izatea.
- # Otsoaren rola bestelakoa izatea: otso jatorra.
- # ...

Ipuina aldaketa hauekin kontatu eta gero, bezperako prozedura berdina erabiliko dugu: pertsonaiak zerrendatu eta ezaugarri bat eman eta gero, pertsonaia horien marrazkiak egitea eskatuko diegu.

#Cambia El Cuento

Ariketa honen adibide gisa, "Cambia el cuento" bideoa ikusiko dugu.

<https://www.youtube.com/watch?v=xCEEKqcSFLO>



3. SAIOA

Garapena

Ipuin baten eta bestearen ondorioen konparazioa/hausnarketa

Ipuin bakoitzarekin lortutako pertsonaien ezaugarrien zerrenda egingo dugu guztion artean.

Marrazkiak leku ikusgarri batean zintzilikatuko dira.

Eztabaida eta hausnarketarako garaia: pertsonaia/ezaugarri/marrazkien konparaketa egin eta ondorioetara iristen saiatuko gara:

- # Txanogorritxo ezberdinek ezaugarri ezberdinak jaso dituzte? Zergatik?
- # Otsoa berdin deskribatu dugu ipuin batean eta bestean?
- # Beste ipuin batzuetan berdina gertatuko litzaiguke?
- # Zer gertatzen da pelikuletan edo telebistako saioetan?
- # Zergatik izaten dira ezberdintasun hauek?
- # ...

Ariketa Txanogorritxoren ipuinarekin egitea proposatzen dizuegu, pertsonaia eta genero-rol oso markatuak dituelako. Hala ere, beste edozein ipuin erabili dezakezue, edo, zuena sortu! Sarean adibide ugari aurkituko dituzue (ikus Eranskinak, Ipuinak).



4. Estereotipoak apurtzen

Lanketa

DBH eta Batxilergoa.

Denbora

60 minutuko saio bat.

Taldekatzeko mota

Talde handia, talde txikiak.

Materialak

Identitate-pertsona ezberdinak jasoko dituen kartela eta ezaugarrien zerrenda.

ESTEREOTIPOAK APURTZEN



SAIOA

Garapena

Hainbat argazkirekin sortutako kartela aurkeztuko diegu (ikusi *Eranskinak, Estereotipoak apurtzen kartela*).

Talde txikietan banatu eta kartel bana utzi.

Pertsona hauen inguruko ezaugarri ezberdinak jasotzen dituen zerrenda banatuko diegu eta emandako kartelean agertzen diren pertsonaiekin lotzea eskatuko diegu (azpimarratu: pertsona bat, ezaugarri bat). Adibidez:

- # Olinpiar jokoetan domina irabazlea, gay.
- # Rock-abeteslaria, gay, musulmana.
- # Lesbiana, tenis-jokalari onenatarikoa.
- # Lesbiana, LGTBQ mugimenduko aktibista.
- # Idazle ezaguna, lesbiana.
- # Oscar saria irabazi du, transexuala.
- # Atletismo-entrenatzailea, gizon transexuala.
- # Telebista-aurkezlea, lesbiana.
- # Lesbiana, bere herrialdeko presidente.
- # Izotz gaineko patinatzailea, munduko txapelduna.
- # Saskibaloj-jokalaria, gay.
- # Errugbi-jokalaria, gay.

Taldeek ariketa bukatu dutenean, hausnarketarako momentua zabalduko dugu:

- # Emandako irizpideekin ezaugarriak pertsonekin lotzea lortu duzue?
- # Ezaugarri berdinak pertsona ezberdinentzat balio du?
- # Pertsona batek ezaugarri ezberdinak izan ditzake?
- # Zertan oinarritu zarete lotura horiek egiterakoan?
- # Zergatik uste duzue emaitza ezberdinak lortu ditugula?
- # ...

Ariketa honen helburua ez da erantzun zuzena bilatzea, ez baitago halakorik. Norberaren arraza, erlijio, genero identitate edo orientazio sexu-afektiboaren gainetik edonor edozer egitera edo izatera hel daitekeela adieraztea baizik.

5. Heteroarauaren karga

Lanketa

DBH eta Batxilergoa.

Denbora

60 minutuko 3 saio.

Taldekatzeko mota

Talde handia, talde txikiak.

Materialak

Hainbat rol laburbiltzen dituzten fitxa indibidualak eta taldekoak, kartoi meheak, errotuladoreak.



1. SAIOA

Garapena

11 boluntario behar ditugu jarduera aurrera eramateko. 11 fitxa prestatu eta boluntario bakoitzari berea banatu. Fitxa bakoitzak rol bat zehaztuko du:

- # "Heterosexuala naiz" fitxa. Beste 10 boluntarioen eta gainontzeko ikaskideen aurrean esaldi hau esango du.
- # Beste 10 boluntarioek, eskuan fitxa bana dutela, premisa hauek aurpegiatuko dizkiote lehenengo boluntarioari:
 - (Ama zara) Ezer esan gabe, burua makurtu eta atsekabetuta alde egin.
 - Heterosexuala? Benetan? Ba ez duzu ematen!
 - Eta orain arte zergatik ez didazu ezer esan?
 - (Aita zara) Heterosexuala? Baina, zer egin dugu gaizki, ba, guk?
 - Baina, ziur zaude? Heterosexuala, seguru?
 - Zure gurasoei esan diezu zerbait?
 - Heterosexuala? Noiz konturatu zara horretaz?
 - Heterosexuala? Ze ondo, nik badut heterosexuala den beste lagun bat!
 - Hetero zikina!! (eta amorratuta alde egin)
 - Baina... Saiatu zara homosexuala izaten, ala ez?

Egoera hauek planteatu eta gero, eztabaidarako giroa sortu:

- # Protagonistari: nola sentitu zara?
- # Besteoi: eta zuek?
- # Denei: zer iruditu zaizkizue egoerak? Arraro egin zaizue egoeraren bat? Identifikatuak sentitu zarete? Logikarik aurkitu diozue ariketari? Zer uste duzue bizi duela homosexual/trans*/... batek horrelako egoera batean? ...

Bukatzeko, Balear Uharteetako gobernuak trans* pertsonen eskubideen alde eginiko kanpainari erreparatuko diogu eta "**La identitat no s'imposa**" bideoa ikusiko dugu (baliabide gehiago *Bibliografia. Informazio erabilgarria* atalean).

www.youtube.com/watch?v=zLKWwLKAOVO

Bezperako egoeraren harira, talde txikitan jarri (4-5 pertsona, taldearen arabera) eta egoera berriak aurkeztu. Egoera hauek 3-4 minutuko "rol playing" baten bidez antzetzuko dituzte gainontzeko gelakideen aurrean, antzetzten ari direna zer den aurrez azaldu gabe:

1. Taldea

Zuetako bat gay da (baina ez du inoiz esan) eta jolas-orduan gelakideek iraindu egin zaituzte. Gelara bueltan, gainera, hauetako batek bultza egin dio, eta eskaileretan behera erori da. Gelara bueltatzean negarrez sartu da.
Oharra: irainak ere antzetzu ditzatela.

2. Taldea

Zuetako bat mutil heterosexuala da eta jolas-orduan sokasaltora jolastea gustatzen zaio. Egun batetik bestera, eskolako mutil eta neska talde bat irainka hasi zaio arrazoi horregatik.

3. Taldea

Zuetako 2 neskek gaur baloia eraman duzue eskolara. Hori ikusita, gelakideak barrezka hasi dira eta "marimutilak!" oihukatu zaituztete. Batek oso gaizki hartu du eta besteak ez dio inolako garrantzirik eman.
Oharra: irainak ere antzetzu ditzatela.

4. Taldea

Zuetako bat neska transexuala da eta etxean kontatu du. Klasera joan denean, lagunak goibel ikusi dute, eta ea zer gertatzen zaion galdetu diote.

5. Taldea

Zuetako bat lesbiana da eta bere lagunak onenari kontatu dio. Honek klasean zabaldu du, eta berarekin gehiago ez hitz egiteko eskatu dio, berarekiko izan ahal dituen sentimenduen beldur.

Homofobiak agerian uzten dituen **"Qué es la microhomofobia y cómo acabar con ella"** bideoa ere ikustera animatzen zaituztegu (baliabide gehiago *Bibliografía. Informazio erabilgarria* atalean).

www.youtube.com/watch?v=x7CTJoY30yo

Antzezlan bakoitza bukatzen denean, gainontzeko gelakideei ikusi dutenaren inguruan galdetuko zaie, laburrean.

"Rol playing" denak antzetzu ostean, eztabaida hasi:

- # Taldeka, beraien egoera nola planteatu duten galdetu. Izan dituzten zalantzak, beldurrak... zeintzuk izan diren, adibidez.
- # Egoera bakoitzeko emozioak identifikatu dituzte?
- # Nola sentitu dira antzetzterakoan?
- # Ikusle bezala ere, nola sentitu dira?
- # Beldurraz, emozioaz, tristuraz, alaitasunaz, maitasunaz... hitz egitea erraza egiten zaigu?
- # Norekin hitz egiten dugu sentimenduez?
- # Nola dago ikusita sentimenduez hitz egitea?



Egoera eta planteamendu hauek guztiak eskolatik kanpo bestelako espazio edota testuingurutan ere egin liezazkiekete gurasoei, lagunei, familiari...

Talde txikitan banatu (4-5 pertsona, taldearen arabera) eta kartoi mehe bana emanda, galdera hau planteatu (10 minutu): zer da maskulinitatea eta zeintzuk dira honen abantailak (babesak) eta desabantailak (zauriak)? Erantzunak kartoi mehean jaso ditzaten eskatu.

Talde handian jarriko gara berriro eta, arbelean, jaso dituzten ideia nagusiak antolatuko ditugu.

Eztabaidarako aprobetxatu tarte hau:

- # Mutil denek dituzte mutil izatearen abantaila berdinak? Eta desabantailak?
- # Zergatik uste duzue *femenino* eta *maskulinoan* banatzen gaituztela?
- # Maskulinitate bakarra edo hegemonikoa dagoela uste duzue?
- # Femitate bakarra dagoela uste duzue?
- # Badakizue zer den lumafobia?
- # Luma mutil homosexualen kontua da soilik?
- # LGBTQ kolektiboaren baitan homofobiarik dagoela uste duzu? Zergatik?
- # Nola uste duzue bizi duela bere maskulinitatea mutil gay batek?
- # Eta mutil transexual batek?
- # Zuen ustez nola bizi du neska lesbiana batek bere femitateak?
- # Eta neska transexual batek?
- # Zein uste duzue dela LGBTQ kolektiboaren egoera munduan? (Ikusi 3. eranskina; baliabide gehiago Bibliografia. Informazioa erabilgarria atalean)
- # ...

Ariketa honi bukaera emateko, "Este chico sufrió el machismo en sus carnes" bideoa ikusiko dugu. Bideoan planteatzen diren galderen inguruko eztabaida planteatu dezakezue, hasieran egindako hausnarketa osatzeko.



www.youtube.com/watch?v=NR2C6JwLXSE



5. Ebaluaketa

Unitatearen kartelarekin egingo dugun lehen jarduera baliagarria suertatuko zaigu lehen ebaluazio bat egiteko eta ikusteko ea zer-nolako jarrera agertzen duten ikasleek sexu edota genero aniztasunaren aurrean; hala, errazago jakingo dugu ea gaiaren zer alderdiri heldu behar diogun sakonago.

Unitatea lantzen den bitartean, ikasleek eztabaidetan, informazioaren bilaketan, proposatzen diren ariketetan eta materialen elaborazioan izandako parte-hartzea behaketa sistematiko baten bitartez ebaluatuko da. Horretarako, zuzenean eta modu sistematikoan behatuko zaie ikasleek eztabaidetan eta talde handiko partekatzeetan izandako hitz-hartzeei, bai eta materialak egitean izandako jarrerari ere. Unitate Didaktikoa bukatzean, berriz, ikasleen banakako eta taldeko lana baloratuko da ezarritako irizpideen arabera.

Bestalde, jarduera bakoitzaren bukaeran jardueraren beraren ebaluazioa egingo da, eta baloratuko da zerk funtzionatu duen, zerk ez, nola antolatu den gela, denbora, ikasleen motibazioa, taldekatzea... Hau guztia unitatearen prozesua eta garapena birmoldatzeko zein egokitzeko erabiliko da.

Ebaluatzeko irizpideak

Eguneroko egoerei behatu eta horiek aztertzen ditu, genero zein LGTBIQ ikuspuntua kontuan hartuz.

Heteroaraua, estereotipo eta rol hitzen esanahia eta beren balio baikorra edota ezkorra ezagutzen ditu.

Jendartean dauden estereotipoen ohartzen da.

Heteroarauak, estereotipoek eta genero-rolak jendartean duten eraginaz jabetzen da.

Jakitun da gure jendartean aniztasun afektibo-sexuala eta genero aniztasuna dagoela.

Jakitun da zenbait pertsonak jarrera negatiboa agertzen duela aniztasun afektibo-sexualaren eta genero aniztasunaren aurrean.

Norberaren eta besteen sexu eta genero aniztasuna errespetatzen du.

Bere eta besteen ezaugarri indibidualak baloratzen eta estimatzen ditu.

Aniztasuna modu positiboan hartzen du.

Ebaluatzeko teknikak

Behaketa eta elkarrizketa.

Ebaluatzeko tresnak

Irakaslearen eguneroko jarraipena.

Ikasle bakoitzaren istorioa. Bertan bilduko dira beraien lanaren balorazioa, lan esanguratsuen bilduma eta unitatea garatzean egindako ahozko ekarpenak.

Egindako lanak.

Ikasleen ebaluazioa

Zer den gehien eta gutxien gustatu zaiena.

Unitatea garatzerakoan nola sentitu diren.

Zer den ikasi dutena edota zertaz jabetu diren.

Zerk harritu dituen gehien.

Zer aldatuko luketen prozesuan.

6. Eranskinak

1. ERANSKINA

Glaukoma taldearen "Gure kaiola" abestiaren letra

Ze guapa zauden. Ze guapo zauden.

Zer da narratsa hemen ta zer da elegantea? Zeinek esan behar dizu oain itsusia zeala?

Zeinek marraztu digu koadrantea? Zein dao erotuta ta zein da kabala?

Ilusio bat da errealitatea, ta gizonen bizio bat denai araua jartzea.

Norbeantzako horma bat da normalitatea. Baino nik ez det izan nahi normala.

Ta zuk ezta re! Etzealako artalde hontako zifra bat, etzea sartzen trajen.

Gezurren saren eroitzeie makina bat, goitik datorren papila jaten.

Beldurren aurren, heldu makila ta goazen, pareta mila dauzkeu ta gure paren.

Eta erreza ez dan arren, kareta kenduta zaudenen... ai! Ez dakizu ze sexy zauden!

Ze guapo zauden mozorroik gabe, ta artaldek esan dezala Beeee...

Ze guapa zauden horren lotsa gabe, estereotipo danak hausten!

Ze guapo zauden mundu hau aldatzen, zure rola zalantzan jartzen!

Ze guapa zauden. Ze guapo zauden.

Gizontasun eredu nik izan nun Action Man, zure emetasun modelo Barbie bat zan.

Eztao generoik genitaletan. Egitura mentala da, aber sartze zaigun gaztan!

Horregatik jartzen gaitue dietan, ta danak die Barbie ta Ken telebista ta aldizkarietan.

Hitzeite ez dun haurran begietan Disney-en maitasunaren fabula. Ipuin honen hasiera.

Nortasunen banaketan, zu woman eta ni man, bakoitza bere ziegan.

Nere heziketan dauden urrezko hesietan. Zure etiketak dauzken gezur ariketak.


Eredu bezela euki diteun figura patriarkalak. Pornografia izan da gure heziketa sexuala.

Heteroarau honen aizkorakaden ezpala. Hau ez da gizarte naturala. Ez du izan nahi.


Kapitalai halaxe komeni zaio, dominazio sistema bereizketan jaio da.

Testikulo gutxigo ta sentimendu gehio. Gizonezko bezela hautsi nahi det gure kaiola.

(Errepikara bueltatu)




ESTEREOTIPOAK APURTZEN



3. ERANSKINA

LGTBIQfobia gaur egun, 2013 vs. 2017






LEYES SOBRE ORIENTACIÓN SEXUAL EN EL MUNDO – MAPA GENERAL

ILGA, ASOCIACIÓN INTERNACIONAL DE LESBIANAS, GAYS, BISEXUALES, TRANS E INTERSEX

MAYO 2017
I L G A . O R G



CRIMINALIZACIÓN

77 Estados

- Aplicada en 3 Estados (o en algunas partes de ellos)
- Muerte
- No aplicada en 5 Estados

▲ Leyes con base religiosa en paralelo al código civil: 19 Estados

- 14 años a cadena perpetua
- 14 Estados
- Hasta 14 años
- 57 Estados
- Leyes de "propaganda"
- 3 Estados
- Sin ley que penalice

En verde: amarillo y naranja) los países donde los actos sexuales despenalizados o nunca fueron criminalizados: 123 Estados

PROTECCIÓN

85 Estados

Varios Estados poseen varios tipos de protección.

- Clausula constitucional
- 9 Estados
- Empleo
- 72 Estados
- Varios
- 63 Estados
- Crimen de odio
- 43 Estados
- Incluidos al odio
- 39 Estados
- Prohibición de "terapia de conversión"
- 3 Estados

RECONOCIMIENTO

47 Estados

Un pequeño número de Estados permiten el matrimonio y otro tipo de uniones de manera simultánea.

- Matrimonio
- 22 Estados
- Otro tipo de uniones
- 28 Estados
- Adopción conjunta
- 26 Estados
- Adopción del hijo/a del conyuge
- 27 Estados

En paralelo a este mapa general, se incluyen por separado otros mapas más detallados para cada una de estas categorías.

Los datos presentados en este mapa, y los otros tres mapas sobre criminalización, discriminación en el empleo, reconocimiento de estado civil y reconocimiento de familia, se basan en el informe "Leyes de igualdad de género y estado civil" publicado por ILGA en febrero de 2017. Este informe y sus datos están disponibles en www.ilga.org. El informe y los datos están disponibles en español, francés, alemán, italiano, portugués, chino, japonés, coreano y ruso. En la versión en español, se han incluido los datos de los países que se han unido al mundo (mayo de 2017). Las estadísticas por Aragón, Castilla y León, Aragón, Murcia (UCA) y Galicia por Eduardo Díaz (eduardo@ilga.org.es).

LGTBIQfobia adibideak

Matan a una transexual en Brasil tras darle una brutal paliza

Homofobia interiorizada: personas LGBTI que se rechazan a sí mismas y al colectivo

"Si no fueses maricón, serías perfecto"

Homofobia en un bar de Bilbao que invita a abandonar el local a una pareja de lesbianas

16 urteko mutil transexual batek bere buruaz beste egin du Ondarroan

"Hace falta gente valiente que denuncie comportamientos homófobos"

Pamplona recuerda al joven Ekai y critica la "transfobia de la sociedad"

El representante de Islandia para Eurovisión 2018 sufre insultos homófobos por llorar tras su actuación

Un chico de 12 años que había salido del armario como bisexual se suicida tras ser acosado por compañeros de colegio

¿Homofobia en Chueca? El dueño de un bar denuncia acoso vecinal por poner la bandera LGBTI

Homofobia en el deporte y bullying en las escuelas: la realidad LGBTI en Vitoria-Gasteiz

Asesinada a balazos Marielle Franco, concejala de Río de Janeiro afrodescendiente, abiertamente bisexual, feminista y activista por los derechos humanos

- www.elmundo.es/espana/2015/01/06/54aae990e2704eeb788b458b.html
- www.noticiasdenavarra.com/2018/02/18/vecinos/pamplona/pamplona-recuerda-al-joven-ekai-y-critica-la-transfobia-de-la-sociedad
- www.argia.eus/albistea/16-urteko-mutil-transexual-batek-bere-buruaz-beste-egin-du-ondarroan
- www.eldiario.es/norte/gazteberri/Hace-valiente-denuncie-comportamientos-homofobos_6_527807236.html
- http://cadenaser.com/emisora/2016/09/24/radio_san_sebastian/1474709230_837772.html
- www.gasteizhoy.com/vitoria-lgtbi-diagnostico/
- www.madriidiario.es/445646/homofobia-chueca-bar-denuncia-acoso-bandera-arcoiris

- <http://shangay.com/el-representante-de-islandia-para-eurovision-2018-sufre-insultos-homofobos-por-llorar-tras-su>
- www.dosmanzanas.com/2018/03/asesinada-a-balazos-marielle-franco.html
- www.dosmanzanas.com/2018/03/un-chico-de-12-anos-que-habia-salido-del-armario-como-bisexual-se-suicida-tras-ser-acosado-por-companeros-de-colegio.html
- www.codigounuevo.com/homofobia-interiorizada-personas-lgtbi-que-se-rechazan-a-si-mismas-y-al-colectivo/
- www.lavanguardia.com/sucesos/20170309/42700409647/youtube-matan-travesti-brasil-paliza.html

7. Bibliografia. Informazio erabilgarria

Ipuinak

Mari zipriztinek ez du zorioneko galeperrik jan nahi

<https://www.slideshare.net/mayonesaUPV/marizipriztinek-ez-du-zorioneko-galeperrik-nahi-ipuin-tradizionalen-bertsio-desberdina>

Ba al dago printzesa larrosa izatea baino gauza aspergarriagorik?

<http://es.calameo.com/read/001254252ac5299338547>

Lalo, el principe rosa

<https://www.youtube.com/watch?v=Gr56pfgFTpQ>

SuperLola

<https://www.youtube.com/watch?v=F6iqghLCuU8>

10 libros infantiles con mucho orgullo (gay)

<https://elasombrario.com/10-libros-infantiles-con-mucho-orgullo-gay/>

Bideo osagarriak

HollySiz, "The light"

<https://www.youtube.com/watch?v=Cf79KXBCIDg>

Yogurinha Borova, Plumofobia

<https://www.youtube.com/watch?v=FGS4leI-uNk>

Stop Plumofobia (bideo seriea)

<https://www.youtube.com/watch?v=QmkznQGmA5A>

1 de cada 10 argentinos es gay (estereotipoak agerian)

<https://www.youtube.com/watch?v=8HI5AaHYmfw&feature=youtu.be>

Dena ondo zihoan, argia piztu den arte (Maialen Lujanbio)

<https://www.youtube.com/watch?v=ZVbsRBpyinw>

"El test de la vida real". Trans* pertsonen bizipenak

https://www.youtube.com/watch?v=yrgRZOR_-3U

Maskulinitatearen inguruko hausnarketa

<https://vimeo.com/240126426>

Igualtat llança una campanya sobre el dret a la identitat de gènere

<https://www.youtube.com/watch?v=ykzy5mMROqc>

Necesitamos un ORGULLO HETERO porque...

<https://www.youtube.com/watch?v=f8SwH7qnXhU>

Así es ser musulman y gay

<https://www.youtube.com/watch?v=cvqN33pq9PA>

Ser madre, lesbiana y musulmana en Indonesia

<https://www.youtube.com/watch?v=IGg4CK6Y11I>

El heteropatriarcado es un experimento social

<https://www.youtube.com/watch?v=n9jVofCWoaO>

¿Eres heterosexual? Deberías ver este video

<https://www.youtube.com/watch?v=rmzf-9cT1hE>

Neska bada/mutila bada

<https://www.youtube.com/watch?v=d0TpwJxkzY4>

Me gustan los chicos

<https://www.youtube.com/watch?v=nRHo0ANj92Y>

Maskulinitatea eta gizonendako zaintza produktuak (NIVEA iragarkia)

<https://www.youtube.com/watch?v=BWdpxaTTiKU&feature=youtu.be>

Masculinidad y fútbol

https://www.youtube.com/watch?v=StJp_H68_m8

Webgune / Artikulu / Blog interesgarriak

LGTBIQ kolektiboa Tunisian

https://www.berria.eus/paperekoa/1845/040/001/2018-03-02/ezin_ditugu_gazte_gehiago_galdu_lege_eta_tradizio_ergelen_erruz.htm

Bazterretako dantzariak

<http://www.argia.eus/argia-astekaria/2526/bazterretako-dantzariak>

Genero gabeko izenak

https://www.berria.eus/paperekoa/1887/008/001/2016-04-27/genero_gabeko_izenen_aldarria.htm

Bai, hau ere homofobia da

<https://www.gaztezulo.eus/albisteak/bai-hau-ere-homofobia-da>

Gay sí, pero que no se note

https://www.eldiario.es/sociedad/Gay-homofobia-plumofobia_0_644285773.html

"Plumofobia", así es la homofobia entre gays que se multiplica en internet

<http://www.elmundo.es/f5/comparte/2017/06/27/5950fa0a46163f5d4b8b465d.html>

El pantalón, una prenda que empondera a las mujeres

<https://www.lolitamoda.com/blog/62-origen-del-pantalon-una-prenda-que-empondera-a-las-mujeres>

Porqué los hombres dejaron de llevar faldas, tacones y pelucas

https://verne.elpais.com/verne/2018/01/25/articulo/1516881949_162680.html

Hasta luego, MariCarmen

<http://www.pikaramagazine.com/2018/02/hasta-luego-maricarmen/>

Lesbiana naiz, atsegin handiz eta sudur-puntan jarri zaidalako

<http://www.argia.eus/albisteak/lesbiana-naiz-atsegin-handiz-eta-sudur-puntan-jarri-zaidalako>

Baliabideak

Genero eta aniztasun sexualerako gida, **STEILAS**

<http://steilas.eus/2015/05/14/genero-eta-aniztasun-sexualerako-gida/>

Genero eta aniztasun afektibo-sexuala lantzeko Unitate Didaktikoak, **STEILAS**

<http://steilas.eus/category/gaiak/igtbi/>

Homosexualitatearen eta lesbianismoaren gaineko aurreiritzia astialdian lantzeko koadernoak

<http://www.aldarte.org/comun/imagenes/documentos/tiempo%20libreEusk.pdf>

Eskola orientazio sexualaren aurrean

<http://www.aldarte.org/comun/imagenes/documentos/Eskolaorientaziosexualarenaurrean.pdf>

Guía didáctica para trabajar género y masculinidad con niños, niñas y adolescentes

http://www.educarenigualdad.org/media/pdf/uploaded/material/248_creciendo-juntos-y-juntas-pdf.pdf

Cocinando ideas para una intervención grupal con hombres desde una perspectiva de género

<http://cepaim.org/wp-content/uploads/2016/09/Gu%C3%ADa-Nuevas-Masculinidades-Cepaim-2015.pdf>

IRAUTZEKO
PREST!



www.steilas.eus